

## **ANTZUOLA / Liburutegia bete egin zen Patxiko Txerren sariketako liburuaren aurkezpenean**

ANTZUOLA. DV. Aurtengo Patxiko Txerren ipuin sariketatik atera den liburuaren aurkezpena egin zen zapatu arratsaldean liburutegian. Eskolako neska-mutikoek idatzitako sei ipuinekin osatu da aurten eta hauek dira aukeratutakoak zein euren egileak, mailaz maila: lehen mailan, Mairi Olabarriaren Txakur aldrebasa; bigarrenen, Jon Mataren Liburu bitxia; hirugarrenean, Nerea Irastorzaren Pailazoa izan nahi zuen neska; laugarrenean, Josu Aiaituiren Ez dut gehiago erreko; bosgarrenean, Mikel Mataren Gure alfabetoaren sorrera; eta seigarrenean, Alaitz Urkiolaren Kazuela tapetatik, txapeldun izatera.

Jende asko bildu zen liburutegian. Sari-ematearekin batera ipuin kontalari batek saioa eskaini zuen. 88 lagunek hartu dute parte Patxiko Txerren ipuin sariketaren hamaikagarren edizio honetan eta guztiek jaso dute liburua. Aurkeztutako ipuin guztiak liburutegian bertan gorde dira.